



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2015eko abuztuaren 4a

5. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### E SAILA:

##### **Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrezkoak diren izapideak abiaraz ditzan, aztertze aldera Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko irakaskuntzen curriculumak ezartzen duten zenbait foru dekreturen alderdi juridiko, substantibo, formal eta legezotasunekoak. Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkeztu du (2. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Estatuko Gobernua premiatzen da Bardeako Tiro Poligonoa berehalakoan desegin dezan eta zorrotasunez iker ditzan iragan uztailearen 23ko gertakariak eta horien arrazoiak. Marisa de Simón Caballero andreak aurkeztu du. (4. or.).
- Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita manten dezan PAI programaren aldeko apustua eta programa horren zabalkundeari ez diezaion moratoriarik ezar. Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkeztu du (6. or.).
- Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita manten dezan Ingelesez Ikasteko Programa (PAI) Nafarroako ikastetxe publikoetan. Ana Beltrán Villalba andreak aurkeztu du (8. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere elkertasuna adierazten baitio Bardean zauritutako pertsonari, eta gertatua berehala argitzea eta tiro-poligonoa desegitea exijitzen baitu. Eledunen Batzarrak onetsia (9. or.).

#### G SAILA:

##### **Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Manu Ayerdi Olaizola jaunak foru parlamentari karguari uko egitea (10. or.).
- Geroa Bai parlamentu-taldearen eleduna aldatzea (10. or.).
- Consuelo Satrustegui Marturet andrea Geroa Bai parlamentu-taldean sartzea (10. or.).
- Nafarroako Parlamentuko Mahaiaren erabakia, batzorde arruntak zehazten dituen (11. or.).
- Mahaiaren erabakia, batzorde bakoitzeko kideen kopurua ezartzen duena (11. or.).
- Nafarroako Parlamentuak Senatuari aurkeztu behar dizkion Konstituzio Auzitegiko magistratu-postu baterako bi hautagaiak hautatzea. Hautagaiak aurkezteko epea (12. or.).
- Nafarroari foru komunitate gisa dagokion senataria hautatzea. Hautagaiak aurkezteko epea (13. or.).
- Nafarroako Kontseiluko kide bat hautatzea. Hautagaiak aurkezteko epea (14. or.).

---

**E saila:**

**JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

**Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrezkoak diren izapideak abiaraz ditzan, aztertze aldera Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko irakaskuntzen curriculuma ezartzen duten zenbait foru dekreturen alderdi juridiko, substantibo, formal eta legezkotasunekoak.**

*NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko uztailaren 31n egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita beharrezkoak diren izapideak abiaraz ditzan, aztertze aldera Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko irakaskuntzen curriculuma ezartzen duten zenbait foru dekreturen alderdi juridiko, substantibo, formal eta legezkotasunekoak.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2015eko uztailaren 31n

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**MOZIOAREN TESTUA**

María Chivite Navascués andreak, Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeko eledunak, Legebiltzarreko Erregelamenduak xedatuaren babesean honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu dadin. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bertan behera utz dezan Nafarroako Foru Komunitateko Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko curriculumen aplikazioa –2015eko uztailaren 2ko NAO on argitaraturiko 24/2015 eta 25/2015 foru dekretuek, apirilaren 22koek, onetsirikoena–, bai

eta curriculumak ezartze aldera Hezkuntzako kontseilariak emandako foru aginduen ere.

Zioen azalpena

2013ko azaroan, Diputatuen Kongresuak LOMCE-Hezkuntzaren Kalitatea Hobetzeko Lege Organikoa onetsi zuen, aldeko boto bakarrak PPrenak izan zirela. UPN abstenitu egin zen eta bai PSOEk bai Parlamentuko oposizioaren gainerakoak errefusatu egin zuten.

Kontuan hartuta zer xedatzen den 1105/2014 Errege Dekretuko 3. artikuluan, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 47. artikuluan eta abuztuaren 31ko 1070/1990 Errege Dekretuan –zeinaren bidez onetsi baitzen unibertsitatekoek bestelako irakaskuntzen arloan Estatuaren funtzioak eta zerbitzuak Nafarroako Foru Komunitateari eskualdatzea–, Nafarroako Foru Komunitateari eskumen osoa dagokio irakaskuntza guztia bere luze-zabalean arautu eta administratzeko, maila, gradu, modalitate eta espezialitate guztietan, ezertan ukatu gabe arlo honi buruz Konstituzioko aginduetan ezarritakoa, agindu horiek garatzen dituzten lege organikoek xedatutakoa, ikasketa- nahiz lanbide-tituluak eskuratu, eman eta homologatzeko baldintzak arautzearen gainean Estatuak eskumenak badituela eta baldintza horien betetze eta bermeari dagokionez Estatuak berea duela goi mailako ikuskapena.

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoko 6. bis artikulua, Hezkuntzaren Kalitatea Hobetzeko abenduaren 9ko 8/2013 Lege Organikoaren artikulua bakarraren 5. idatz-zatiak ematen dion testuan, banatu egiten ditu hezkuntza-arloko legegintza-eskumenak eta zehaztu, curriculumari dagokionez, hezkuntza-administra-

zioek Oinarrizko Hezkuntzako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko etapei buruz garatu ahalko dituzten zertzeladak.

Konkretuki, 6. bis artikuluko 2. c) atalak hezkuntza-arloko administrazioei esleitzen dizkien ahalmenak dira enbor-ikasgaien blokearen eduki osagarriak ezartzea, berariazko ikasgaien eta autonomia erkidegoek libreki itxuratzeakoak diren ikasgaien blokeen edukiak ezartzea, beren eskumen-esparruko ikastetxeetarako metodologia didaktikoko gomendioak egitea, ezartzea zein izanen den gehieneko eskola-ordutegia enbor-ikasgaien blokeko edukiei, berariazko ikasgaien blokeko edukiei eta autonomia-erkidegoek libreki itxuratzeakoak diren ikasgaien blokeko edukiei dagokienez, ikaste-estandar ebaluagarriak ezartzea autonomia-erkidegoek libreki itxuratzeakoak diren ikasgaien blokeko edukiei dagokienez, eta, etapan zeharreko ebaluazioari dagokienez, enbor-ikasgaien blokeari eta berariazko ikasgaien blokeari dagozkien ebaluazio-irizpideen osagarriak ezartzea eta autonomia-erkidegoek libreki itxuratzeakoak diren ikasgaien blokeko ebaluazio-irizpideak finkatzea.

Estatuaren eskumenen esparruan, abenduaren 26ko 1105/2014 Errege Dekretua onetsi zen, zeinaren bidez ezartzen baita Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko oinarrizko curriculum-a. Errege dekretu horrek errepikatu egiten du maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoan ezarritako araubidea eskumen-banaketat.

Uztailaren 2an, Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuak foru dekretu batzuk argitaratu ditu Nafarroako Aldizkari Ofizialean, apirilaren hasieratik prest zeudenak, eta horien bidez iragate-epe bat ezarri du, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko ikastetxeek ikasgai batzuk lehengo araubideari heldurik eskaintzen jarrai dezaten; baina eskainiko dituzte ikastetxeek taxututako ikasgai gisa. Hurrengo ikasturtean, 2016-2017an, LOMCEa DBHko bigarren eta laugarren mailetara eta Batxilergoko bigarrenera iritsiko da.

Arau-argitalpen hori egin da joan den maiatzaren 24an Nafarroako Foru Komunitatean hauteskundeak egin ondoren. Ikasturteko eskolaldiaz gerokoa da eta, beraz, ezina da irakasleen klaustroak, Koordinazio Pedagogikoko Batzordeak edo koordinazio didaktikoko kasuko organoak etapako curriculum proiektua presta eta gainbegira dezan zerari jarraituz, curriculum onetsiei eta irakasleen klaustroak berak proiektu horren inplementaziorako ezarriko lituzkeen irizpideei.

Halaber, ez da aintzat hartzen 2015-2016 ikasturteak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko etapetan duen curriculum-antolaketa-ren konplexutasun berezia; izan ere, bi arau ezberdinek gobernatutako bi hezkuntza-sistemaren aldi-berekotasun bat gertatzen da, eta ez dago behar adina denborarik hezkuntza-plangintza egiteko, hezkuntza-arloan Gobernuak onetsitako foru-araua egokitzeko eta arau horrek irakaskuntzaren errealitatean ezinbestez behar duen inplementaziorako, eta horren eskutiko curriculum-proiektu, programazio didaktiko, programazio-unitate eta irakaskuntzan derrigorrean prestatu beharrekoak diren gainerako dokumentuetarako.

Bestetik, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoko V. tituluaren II. kapituluak, gaur egun duen testuaren bitartez, ikastetxeen autonomia ezartzen du. Zehazki, "hezkuntza-proiektu bat, kudeaketa-proiektu bat eta ikastetxearen antolamendu eta funtzionamendurako arauak prestatu, onetsi eta exekutatzeko". Halaber, 120.3 artikuluan hezkuntza-arloko administrazioei exijitzen die autonomia hori indartu eta sustatzea. Zeregin hori, baina, oztopatu egiten du curriculum berrien ezarpenak; curriculum horiek dakarte hezkuntza-sistemaren egitura eta antolaketa birtaxutzea ikastetxeei ia denborarik eman gabe sistematika berrira egokitzeko.

Horregatik guztiagatik, Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak honako erabaki proposamen hau aurkezten du:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du legedi indardunaren arabera beharrezkoak diren tramiteak abiaraz ditzan, apirilaren 22ko 24/2015 eta 25/2015 foru dekretuen alderdi juridiko, substantibo, formal eta legezotasunekoen azterketa egiteko. Foru dekretu horiek 2015eko uztailaren 2ko NAO-n argitaratu ziren, eta horien bitartez Nafarroako Foru Komunitatean ezartzen dira, hurrenez hurren, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako irakaskuntzen eta Batxilergoko irakaskuntzen curriculumak.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du eten dezan Nafarroako Foru Komunitateko Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko curriculumen aplikazioa, bai eta Hezkuntzako kontseilariak curriculumen ezarpenarako emandako 46/2015 eta 47/2015 foru agindue-na ere.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioari eska diezaion LOMCEren aplikazioa bertan behera uztea, bai eta berehala deitzea eta batzartzea Hezkuntzako Konferentzia Sektoriala,

Estatuaren lurralde osoan hezkuntza-politikaren koordinaziorako topagune eta hausnargune den aldetik.

Iruñean, 2015eko uztailaren 17an

Eleduna: María Chivite Navascués

## **Mozioa. Horren bidez, Estatuko Gobernua premiatzen da Bardeako Tiro Poligonoa berehalakoan desegin dezan eta zorroztasunez iker ditzan iragan uztailaren 23ko gertakariak eta horien arrazoiak.**

*MARISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK AURKEZTU DU.*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko uztailaren 31n egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Marisa de Simón Caballero andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Estatuko Gobernua premiatzen baita Bardeako Tiro Poligonoa berehalakoan desegin dezan eta zorroztasunez iker ditzan iragan uztailaren 23ko gertakariak eta horien arrazoiak.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2015eko uztailaren 31n

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **MOZIOAREN TESTUA**

Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarreko parlamentari Marisa de Simón Caballerok, Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, mozio hau aurkeztu du, Eledunen Batzarrean eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena

Bardeak 42.500 hektareako azalera du gutxi gorabehera. Garrantzi biologiko apartekoa duen naturgune bat da, eta ingurumenaren arloko maila altueneko babes-figura pean dago, natur parke bat baita eta munduko biosfera-erreserben sarean baitago.

Hain maila altuko ingurumen-babesa badu ere, Errege Bardean dago, 1951tik, NATOk European

duen tiro- eta bonbardaketa-poligonorik handiena. Biztanle-dentsitate txikia duen gunea da: 19 udal, bi haran eta monasterio bat daude. Guztiak ere landa-eremuko biztanleguneak dira, zeinetatik handiena Tutera baita, 30.000 biztanlerekin. Biztanle horiek tiro- eta bonbardaketa-eremuak hartzen dituen 2.222 hektareekin bizi beharra dute; nolana ere, praktikan, NATOk aireko espazio guztia hartzen du tiro-eremutik 50 kilometroko erradioan.

Bardea inguruko herriei ez zaie inoiz zuzenean galdetu ea tiro- eta bonbardaketa-poligono hori nahi zuten; erabaki hori Gobernu frankistak hartu zuen, eta herritarrek poligono horrekin bizi behar izan dute ordutik.

Gizartearen parte handi bat egon da, eta dago, tiro- eta bonbardaketa-eremu horren aurka. Tiro-poligonoaren aurkako batzordean biltzen da kalte-tutako gizarte zibila, eta batzorde hori da poligonoaren aurkako gizarte-mobilizazioetan buru egiten duena.

Hogeita hamar urtez, talde politiko desberdinek eta Nafarroako erakundeek, hala Parlamentuak nola udal ugari, ekimen anitz gauzatu dituzte Bardeako tiro-poligonoa ixteko.

Gaur egun, Espainiako armadak eta NATOko armadek maniobrak eta bonbardaketak egiten jarraitzen dute, urteroko "Ekaitz" izeneko operazioak barne direla. Operazio horietan, benetako armak erabiltzen dira, eta ez dakigu zer armarekin esperimendatzen den ezta ariketa militarrok zer arrisku izan ditzaketen ere biztanleentzat eta ingurumenarentzat. Ez dago inolako txosten independenterik, informaziorik ere ezin da eskuratu; ezer ez.

Tiro-poligonoarekin zerikusia zuten 30 istripu larri baino gehiago gertatu dira, eta bat baino gehiago izan dira eremu urbanoetan eroritako hegazkinak edo "galdutako" bonbak; biztanlegunetatik segundo gutxi batzuetara, hegazkinen abadura kontuan hartzen badugu. 1988ko otsailean, F-16 batetik lau erregai-andel askatu eta Cortestik 1.000 metrora erori zirenean; 2000ko martxoaren 13an, bi F-18k airean talka egin eta Ejea de los Caballeroseko hiritik –15.000 biztanle– bi kilometro baino gutxiagora erori zirenean (hegaldi-segundo bakar batek ekidin zuen hondamendia); edo 2009ko apirillean, F-18 bat Valtierraiko herrigunetik hegaldi-segundo gutxi batzuetara zegoelarik lurra jo zuenean.

Gainera, Bardeako entrenamenduak eta bonbardaketak su errealekin egiten dira, munduko beste leku batzuetako gerrak simulatuz; hala zioen Aireko Armadak bere webgunean, "Ekaitz" operazioa zela-eta: "Entrenamendu honen bidez, trebatuta eta prest izaten dugu Aireko Armada, halako moduz non, krisi-une batean Gobernuak irizten badio Armadak nonbait parte hartu behar duela –iaz Libiako krisian bezala–, modua izan dezagun behar bezain laster eta modu eraginkorrean erreakzionatzeko".

Azken sei hilabeteotan, biztanle zibilei erasan dieten bi istripu gertatu dira Bardeako poligonoan, maniobra militarren ondorioz.

Martxoaren 5ean, F-5 batek bi ke-bonba bota zituen Bardean, txango bat egiten ari ziren bi pertsonarengandik hurbil.

Uztailaren 23an, kalibre txikiko bala batek zibil bat zauritu zuen, tiro-eremuko kanpo-perimetrotik haratago bere ibilgailuan zihola. Itxura batean, Bardeako tiro-poligonoko entrenamendu batzuetan parte hartzen ari zen helikoptero baten albo-metrailadore batek jaurtikitako bala bat zen.

Tiro- eta bonbardaketa-poligono hau eraistea beharkizun bat da, ondokoetan oinarritua: bakea aldezte militarismoaren eta gerraren aldean, herritarren segurtasuna ziurtatzeko premia eta natur parke eta munduko biosfera-erreserba deklaraturako lurralde baten balio ekologikoen babesa. Gaur egun, gainera, beharizan sozial eta ekonomiko bat ere bada poligonoa ixtea. Krisi ekonomiko ikaragarria bizi dugu, langabezia eta pobrezia tasak jasanezinak dira, eta horregatik da premia-koagoa gastu militarren aldean gastu sozialak lehenestea.

Erabaki proposamena:

1. Nafarroako Parlamentuak Estatuko Gobernuak premiatzen du berehala itxi dezan Bardeako tiro-poligonoa.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak eta Estatuko Gobernuak premiatzen ditu zorrotzasunez iker dezaten zer gertatu zen uztailaren 23an eta zer arrazoik eragin zuten Bardeako tiro-poligonoaren inguruetan nafar herritar bat balaz zauritu izana.

3. Nafarroako Parlamentuak Espainiar Estatuko Defentsa Ministerioari exijitzen dio berehala eten ditzala Nafarroako aireko espazioan su errealekin egiten dituen Bardeako tiro-poligonoko maniobra militarrik.

4. Nafarroako Parlamentuak Estatuko Gobernuak premiatzen du berehala eten ditzan Espainiako armadak eta NATOko armadek Bardean egiten dituzten maniobra militarrik eta bonbardaketak, "Ekaitz" izeneko operazioak barne direla; eta exijitzen dio berehala geldiaraz ditzala operazio horiek, eta behin betiko eten ditzala.

Iruñean, 2015ko uztailaren 28an

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

## **Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita mantenduzan PAI programaren aldeko apustua eta programa horren zabal-kundeari ez diezaion moratoriarik ezar.**

### *NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko uztailaren 31n egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita mantenduzan PAI programaren aldeko apustua eta programa horren zabal-kundeari ez diezaion moratoriarik ezar.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2015eko uztailaren 31n

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **MOZIOAREN TESTUA**

María Chivite Navascués andreak, Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeko eledunak, Legebiltzarreko Erregelamenduak xedatuaren babesean honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu dadin. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da PAI programaren aldeko apustua mantenduzan eta, horrenbestez, programa horren zabal-kundeari ez diezaion iragarritako moratoriarik ezar, eta, halaber, baliabide nahikoak biderra ditzan eredu horren egungo eta etorkizuneko garapenerako.

Zioen azalpena

Ingelesaren ezagutza erabakigarria da enplegagarritasuna eta produktibitatea hobetzeko gizar-te globalizatu batean, eredu ekonomiko eta produktibo berri bat garatu ahal izateko egiturazko erreforma-prozesu batean murgilduta baitago. Hizkuntz gaitasuna ez da jada balio erantsi bat; aldiz, ezinbestekoa bilakatu da gure Foru Komunitatearen eta herrialdearen erronka ekonomiko, sozial eta hezkuntzakoei aurre egiteko, eta horrek ahalegin gehigarri garrantzitsu bat eskatzen du Nafarroako Gobernuaren aldetik.

Zenbait ikerketak diotenez, gaur egun, bigarren hizkuntza bat menderatzea beharrezkoagoa da

bilatzen den lanbide-profilaren arabera; izan ere, ezinbesteko baldintza da enpresek lizentziadun berriei zuzenduriko lan eskaintzen % 58an. Erdimailako exekutiboentzako lanpostuetan, zenbateko hori % 65era igotzen da, eta goi mailako zuzendaritza postuetan, berriz, % 100era igotzen da.

Gaur egun, egunean egon nahi duen edo liburu espezializatuak irakurri nahi dituen ikertzaile edo profesional orok ezinbestekoa du ingelesa jakitea bere ezagutza-eremuan egiten diren aurre-rapen azkarren berri izateko. Eta hori horrela da bibliografia zientifikoaren % 75 ingelesez idatzita dagoelako.

Ingelesa da telekomunikazioen hizkuntza; izan ere, elektronikoki gordetako informazioaren % 80 ingelesez dago. Interneteko erabiltzaile kopurua guztira 40 milioikoa dela jotzen delarik, horien % 80 hizkuntza horretan komunikatzen da gaur egun. Webgune gehienak ingelesez editatzen dira. Gainera, jatorriz ingeles hiztunak ez diren sareko erabiltzaileen kopurua oso azkar ari da areagotzen; hori dela eta, garrantzitsua da ingelesa menderatzea.

Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Departamentuak emandako azken datuen arabera, Foru Erkidegoko 208 ikastetxeetatik 107k Ingelesez Ikasteko Programa (PAI) eskainiko dute hurrengo ikasturtean. PAI programaren eskaera areagotzen ari da; hala erakusten du heldu den ikasturtean beste 16 ikastetxetan eskaintzeak. Horiekin, 107 izanen dira eredu hori ezarrita izanen duten Nafarroako hezkuntza sareko ikastetxeak, Foru Komunitate osoan. Sare itunduan, PAI ereduak 2014-2015 ikasturtean ezarri zen 17 ikastetxetan estreinakoz, eta irailetik aurrera beste zortzi ikastetxetan ezarriko da.

Duela gutxi ezagutarazi da "2015-2019 urteetarako Nafarroako Gobernuaren itun programatikoa", Geroa Bai, EH Bildu, Podemos eta Izquierda-Ezkerra alderdi politikoek sinatua, eta bertan ondokoa adierazten da akordio-puntu gisa: "Moratoria bat ezarriko da, gutxienez urtebetekoa, PAI ereduaren zabal-kundearen, egungo programa ebaluatzeko eta hizkuntzen tratamendu integraturako plan berri bat diseinatzeko, curriculumean ezarri ahal izateko". Halaber, Nafarroako Gobernuak

lehendakari jadanik badenak moratoria hori ezarriko zela berretsi zuen bere inbestidurarako Osoko Bilkuran, iragan uztailaren 20an.

Zalantzarik gabe, gabeziak izan dira PAI ereduaren plangintzan eta exekuzioan: ez da egin ikasleen alde aurretiko balorazio akademiko eta sozialik; ez da abian jarri anbizio handiko prestakuntza-planik epe luzerako, irakasleek ingelesaren ezagutza egiazta dezaten; ez da azterlanik egin PAI programak izanen dituen lan-eraginei buruz, urtero behin betiko irakasle kopuru handi bat mugituko baita ikastetxeetan; inprobisazioa nagusitu da; LOMCEk ezarritako hezkuntza-erreforma indarrean sartzean —lege horretan ikastetxeen kanpo balorazio estandarizatuak aurreikusten dira, ikastetxeak sailkatzeko—, hori ere presaka ezarri baita, ez da aurreikusi nola egingen zaizkien balorazio horiek Nafarroako PAI ikastetxeetako ikasleei, ez eta halako proben bidez egiazki kontuan har ote daitekeen programa elebidun batek duen zailtasun berezia ere.

Hori dela eta, gobernu irtenberriak alor horretan eginiko kudeaketa nabarmen hobetu daiteke, ezarpenaren erritmoari, irakasleen prestakuntzari, aniztasunaren arretarako neurriak ezartzeari eta baliabide didaktiko gehiago ahalbidetzeari dagokienez.

Baina horrek ez du justifikatzen milaka familiak eskatzen duten eredu baten zabalkundea etetea; izan ere, eredu horrek bermatzen du, ingelesa menperatzearen bitartez, Nafarroako ikasleek bikaintasun handiagoko maila izatea lehiarako. Hala, gaitasun hori izan ezean, zailtasun askozaz handiagoa izanen lukete nork bere lan ibilbideari ekiteko, eta Nafarroak desabantaila izanen luke beste autonomia erkidego batzuen aldean, enple-

gua sortuko duten inbertsio berriak eta proiektuak erakartzeko garaian.

Izan litezke ikasleak, beren familiek gaur egun pairatzen duten desabantaila soziokultural eta ekonomikoagatik, ezin izanen luketenak beste hezkuntza bat ikasi, halako programarik ez balego. Hori dela eta, aipatu ereduaren zabalkundean iragarritako moratoriak eta horren ondoriozko baliabide-horniduraren moteltzeak eragin larria du matrikulatutako ikasleen hezkuntza-kalitatean eta aukera berdintasunean, eta ikasle horiek desabantaila-egoeran jartzen ditu haien lan- eta bizi-etorkizunari begira, eta gu ez gaude hori onartzeko prest.

Hori guztia dela-eta, Nafarroako Alderdi Sozialista bat dator ebaluazio bat egiteko beharrarekin, baina inolaz ere ez iragarritako moratoria horrekin; aitzitik, Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuari exijitzen dio ahalegin handiagoa egin dezan programaren kudeaketari dagokionez, abian jar ditzan prestakuntza-jarduerak eta aniztasunari arreta emateko neurriak, sor litekeen edozein hezkuntza beharriari erantzuteko, bai eta materialak, unitate didaktikoak eta beharrezkoak diren berariazko baliabideak sor ditzan.

Erabaki proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du PAI programaren aldeko apustua mantentzeko eta, horrenbestez, programa horren zabalkundeari ez diezaion moratoriarik ezar, eta, halaber, baliabide nahikoak bidera ditzan eredu horren egungo eta etorkizuneko garpenerako.

Iruñean, 2015eko uztailaren 29an

Eleduna: María Chivite Navascués

## **Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuaren premiatzen baita mantenduzan Ingelesez Ikasteko Programa (PAI) Nafarroako ikastetxe publikoetan.**

*ANA BELTRÁN VILLALBA ANDREAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko uztailaren 31n egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Ana Beltrán Villalba andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuaren premiatzen baita mantenduzan Ingelesez Ikasteko Programa (PAI) Nafarroako ikastetxe publikoetan.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdikoa hamabietan.

Iruñean, 2015eko uztailaren 31n

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **MOZIOAREN TESTUA**

Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuaren premiatzen baita mantenduzan Ingelesez Ikasteko Programa (PAI) Nafarroako ikastetxe publikoetan.

Nafarroako Parlamentuko Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteko Ana Beltrán Villalba andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta onesteko. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernuaren premiatzen da mantenduzan Ingelesez Ikasteko Programa (PAI) Nafarroako ikastetxe publikoetan.

Zioen azalpena

Egun Nafarroako Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan eskaintzen den Ingelesez Ikasteko Programa (PAI) ezinbesteko aurrerapausoa da ikasleen heziketan; izan ere, ingelesezko hizkuntza-murgiltzea ahalbidetzen du sistema publikoan, eta hori, eskaera handikoa izateaz gain, oso eraginkorra da ikaskuntzarako, eta ez bakarrik hizkuntzen alorrean. Ingelesez Ikasteko Programa, bistan denez, beharrezkoa da gizarteak adierazitako beharrezkoak egokitzeko Nafarroako ikasleen hezkuntza. Beharrezkoak diren Euro-

par Batasunaren irizpideekin, Europako herrialde guztietako ikasleek atzerriko hizkuntza bat edo gehiago ikasi eta erraztasunez erabili, txikitatik ikasteari garrantzia eman eta bizitza osoan mantentzeko dagokionez.

Duela gutxi osatu den Nafarroako Gobernu berriaren akordio programatikoa aurreikusten du, hezkuntzari dagozkion puntu nagusien artean, PAI ereduaren zabalkundearen gutxienez urtebeteko moratoria bat ezartzeko erabakia, egungo programa ebaluatzeko eta hizkuntzen tratamendu integraturako plan berria diseinatuz. Programa horrek hizkuntz aniztasunaren ezarpena ahalbidetzen du eta, gaur egun, Nafarroako milaka familiak baliatzen dute. Gainera, gizartean gero eta handiagoa den beharrezko bati erantzuten dio; alegia, gutxienez atzerriko hizkuntza bat menderatzeko beharrezko, etorkizunean Nafarroako ikasleak egokitu ahal daitezkeen gero eta lehiakorrago eta globalagoa den lan merkatua eta horretan arrakastaz moldatu. Eta moratoria hori zoritxarreko litzateke programa horren ezarpenaren eta garrantziaren aurrerapenerako.

Gobernu berriak ezarri nahi duen moratoria horren ondorioz, soilik baliabide gehien duten familiek eskaini ahal izanen diete ezagutza hori haien seme-alabei; eta, hala, gutxienez dutenak zigortzen dira gutxienez dakitenak eta lan-etorkizun duina izateko aukera gutxienez dutenak ere izatera.

Hezkuntza alorreko beharrezko bati da, horrenbestez, Nafarroako ikastetxe guztiek izatea Ingelesez Ikasteko Programa (PAI) eskaintzeko aukera.

Parlamentuak Nafarroako Gobernuaren premiatzen du ez dezan ezarri gobernu berriaren akordio programatikoa aurreikusitako Ingelesez Ikasteko Programaren (PAI) moratoria eta, beraz, programa hori bere horretan mantenduzan. Beharrezkoa da ingelesaren irakaskuntzaren aldeko apustua egiten jarraitzea, halako moduz non ahalbidetuko baita hizkuntza hori txikitatik ikastea eta, hala, Nafarroako ikasle guztiek aukera berdina izatea etorkizunean, haien gurasoen baliabide ekonomikoak zenbatekoak diren ere.

Iruñean, 2015eko uztailaren 29an

Eleduna: Ana Beltrán foru parlamentaria



**Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere elkartasuna adierazten baitio Bardean zauritutako pertsonari, eta gertatua berehala argitzea eta tiro-poligonoa desegitea exijitzen baitu**

*ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA*

2015eko uztailaren 31n egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Parlamentuak bere elkartasuna adierazten dio zauritutako pertsonari, eta gertatua berehala argitzea exijitzen du.

2. Nafarroako Parlamentuak ezinbestekotzat jotzen du Defentsa Ministerioak eta Errege

Bardeako Komunitateak tiro-poligonoa desegin dezaten, bai arrazoi sozialengatik bai ingurumenari nahiz bake eta segurtasunaren balioen aldezteari dagozkion arrazoiengatik”

Iruñean, 2015eko uztailaren 31n

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

### **Manu Ayerdi Olaizola jaunak foru parlamentari karguari uko egitea**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko uztailaren 27an eginiko bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen:

Foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizola jaunak aurkezturiko uko-idazkia dela-eta, honako hau ERABAKI DA:

1. Jasotzat ematea Manu Ayerdi Olaizola jaunak aurkeztutako idazkia, uko egitekoa foru parlamentari izaerari, zeina lortu baitzuen martxoaren

30eko 2/2015 Foru Dekretuaren bidez deituriko Nafarroako Parlamenturako hauteskundeetan (62. zenbakiko NAO, 2015eko martxoaren 31koa), Geroa Bai hauteskunde-koalizioaren hautagaitza-ren barruan.

2. Agintzea erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

Iruñean, 2015eko uztailaren 27an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

---

### **Geroa Bai parlamentu-taldearen eleduna aldatzea**

2015eko uztailaren 28an aurkeztutako idazki baten bidez Geroa Bai parlamentu-taldeak jakinarazi zuen Koldo Martínez Urionabarrenetxea jauna izendatzen zuela parlamentu-taldearen eledun, Manu Ayerdi Olaizola jaunaren ordez.

Iruñean, 2015eko uztailaren 31n

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

---

### **Consuelo Satrústegui Marturet andrea Geroa Bai parlamentu-taldean sartzea**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko uztailaren 31n eginiko bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusita foru parlamentari Consuelo Satrústegui Marturet andreak aurtengo uztailaren 31n aurkezturiko idazkia, zeinaren bidez jakinarazten baitu Geroa Bai parlamentu-taldean sartu dela, ERABAKI DA:

1. Adieraztea idazki horren berri izan duela.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2015eko uztailaren 31n

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

## Nafarroako Parlamentuko Mahaiaren erabakia, batzorde arruntak zehazten dituena

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko uztailaren 31n eginiko bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusita 8/2015 Foru Dekretua, uztailaren 22koa, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren departamentuen egitura ezartzen duena. Kontuan hartuta ezen, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 58 eta 59. artikuluek xedatuari jarraituz, arau horietan berariaz aipaturiko batzorde arrunt diren Foru Araubideko Batzorde, Bizikidetasunaren eta Nazioarteko Elkartasunaren Batzorde, Erregelamendu Batzorde eta Eskaera Batzordeaz gain, Mahaiak gainerako batzorde arruntak antolatuko dituela Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio Departamentuei doiturik, ERABAKI DA:

1. Adieraztea Nafarroako Parlamentuko batzorde arrunt direla, aipaturiko erregelamendu-araue-tan zehazturikoz gain, honako hauek:

- Garapen Ekonomikoa.
- Eskubide Sozialak.
- Ogasuna eta Finantza Politika.
- Lehendakaritza, Funtzio Publikoa, Barnea eta Justizia.
- Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanak.
- Hezkuntza.
- Osasuna.
- Kultura, Kirola eta Gazteria.
- Landa Garapena, Toki Administrazioa eta Ingurumena.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2015eko uztailaren 31n

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

## Mahaiaren erabakia, batzorde bakoitzeko kideen kopurua ezartzen duena

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko uztailaren 31n eginiko bilkuran, besteak beste honako erabaki hau hartu zuen, Eledunen Batzarrek erabaki loteslea hartu ondoren:

Erregelamenduaren arabera prozesua gauzatu ondoren, Legebiltzarrean bost parlamentutalde eta foru parlamentarien bi elkarte eratu dira. Horiek guztiek eskubide eta betebeharra dute beren kide-kopuruaren arabera batzordeetan ordezkaturik egoteko, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 29.4 eta 45.1 artikuluetan nahiz askotariko parlamentu-taldearen jarduna eta antolaera ezartzen dituen Lehendakaritzaren 2007ko ekainaren 22ko Erabakiko 3. artikuluan xedatuari jarraituz. Hori horrela, eta zerbitzu juridikoek txostenak egin ondoren, honakoa ERABAKI DA:

1. Ezartzea Nafarroako Parlamentuko batzorde arruntak osatuko dituzten foru parlamentariak hamabost izanen direla.

2. Batzorde arrunt bakoitzeko kideen guztizko kopurua honela banatzea parlamentu-talde eta foru parlamentarien elkarrean artean:

Unión del Pueblo Navarro .....	4
Geroa Bai.....	3
EH Bildu Nafarroa .....	2
Podemos-Ahal dugu .....	2
Nafarroako Alderdi Sozialista .....	2
Nafarroako Parlamentuko Alderdi Popularra .....	1
Izquierda-Ezkerra.....	1

3. Xedatzea ezen parlamentu-taldeek eta foru parlamentarien elkarrean batzorde ezberdinetan izanen dituzten ordezkariak izendatzeko epea 2015eko irailaren 1eko 09:00etan hasiko dela, eta urte eta hilabete horren 4ko 13:00etan bukatuko.

4. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2015eko uztailaren 31n

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

## **Nafarroako Parlamentuak Senatuari aurkeztu behar dizkion Konstituzio Auzitegiko magistratu-postu baterako bi hautagaiak hautatzea.**

### *HAUTAGAIAK AURKEZTEKO EPEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko uztailaren 31n eginiko bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusita Senatuak Lehendakariaren idazkia, zeinaren bidez jakinarazten baitu 2015eko irailaren 15ean bukatuko dela autonomia erkidegoetako legebiltzarrek duten epea hautagaitzak aurkezteko Konstituzio Auzitegiko magistratu postu huts bat betetzeko.

Kontuan hartuta Nafarroako Parlamentuak Senatuari aurkeztu behar dizkion Konstituzio Auzitegiko magistratu-postu baterako bi hautagaiak hautatzeko arauak, Mahaiak 2007ko abenduaren 10ean harturiko erabakiaren bidez onetsiak eta 2007ko abenduaren 17ko 40. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratuak, eta Ele-dunen Batzarrarekin bat, hona ERABAKIA:

**1.** Xedatzea arestian aipatu den magistratu postu bat betetzeko hautagaia, Senatuari aurkeztu beharrekoa, aukeratuko dela 2007ko abenduaren 10eko Nafarroako Parlamentuko Mahaiaren erabakiaren bidez onetsitako arauetan ezarritakoari jarraituz (40. NPAO, 2007-12-17koa), per-

tsona bakarreko hautagaitza izateak beharturiko egokitzapenekin.

Egokitzapen horiek direla eta, arau hauek aplikatuko dira, bereziki:

*a) Parlamentu-talde edo foru parlamentarien elkarte bakoitzak hautagai bakarra aurkezten ahalko du.*

*b) Osoko Bilkurak hautagaia izendatzeko botazioan, foru parlamentariak txartelean jasotzen ahalko dute Mahaiak aldarrikaturiko hautagai-  
etako baten izena soilik.*

**2.** Konstituzio Auzitegiko magistratu izateko hautagaiak aurkezteko epea aurtengo irailaren 1eko 09:00etan hasi eta irailaren 4ko 13:00etan bukatuko da.

**3.** Erabaki hau jakinaraztea parlamentu-taldekako eta foru parlamentarien elkarteetako ele-dunei, eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2015eko uztailaren 31n

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

## **Nafarroari foru komunitate gisa dagokion senataria hautatzea.**

### *HAUTAGAIK AURKEZTEKO EPEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko uztailaren 31n eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 208. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, eta kontuan hartuta Espaniako Konstituzioaren 69.5 artikulua eta Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 12. artikulua, Eledunen Batzarrarekin bat, ERABAKI DA:

**1.** Finkatzea Nafarroako Foru Komunitateari dagokion senatari-kopurua batekoa dela hautatzeko prozedura Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 208. artikuluan ezarritakoa izanen da.

**2.** Ezartzea zein izanen den Nafarroako Foru Komunitateko senatari izateko hautagaiak aurkezteko epea; honakoa, hain zuzen: aurtengo

irailaren 1eko 09:00etatik irailaren 4ko 13:00etara bitarte.

**3.** Hautagai bakoitza aurkezteko idazkiarekin batera, zeina aurkezle den parlamentu-taldearen edo foru parlamentarien elkartearen ordezkariak sinatua egonen baita, beste agiri hauek aurkeztu beharko dira: hautagaitza-onartzearen adierazpena; Hauteskunde-araubide Orokorren Lege Organikoaren 6. eta 154. artikuluetako hautaezintasun-arrazoirik ez dagoela dioen zinpeko adierazpena; hautesle-errolan dagoela dioen ziurtagiria; eta hautagaia Nafarroako udalen batean errolatuta dagoela dioen ziurtagiria.

**4.** Erabaki hau jakinaraztea parlamentu-taldekotako eta foru parlamentarien elkarteetako eldunei, eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2015eko uztailaren 31n.

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

## **Nafarroako Kontseiluko kide bat hautatzea.**

### *HAUTAGAIK AURKEZTEKO EPEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko uztailaren 31n eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusita 6/2015 Foru Dekretua, ekainaren 3koa, zeinaren bidez onesten baita María Asunción Erice Echegaray andreak Nafarroako Kontseiluko kide izateari uko egitea, Legebiltzar honek proposaturik izendaturiko kontseilukidea izan baita, eta Nafarroako Kontseiluari buruzko martxoaren 16ko 8/1999 Foru Legeko 4.1 eta 11.3 artikuluetan ezarritakoari jarraituz, ERABAKI DA:

**1.** Nafarroako Parlamentuak proposaturik hautatzekoa den Nafarroako Kontseiluko kide berri baten hautaketarako prozedura hastea; horretarako, parlamentu-taldeek eta foru parlamentarien elkarteek hautagaiak aurkezteko epe bat irekiko da, zeina 2015eko irailaren 1eko 09:00etan hasiko baita, eta urte eta hilabete bereko 4ko 13:00etan bukatuko.

**2.** Hautaketa-prozedura beteko da "Nafarroako Parlamentuak izendatu behar dituen Nafarroako Kontseiluko kideak hautatzeko arau"ei jarraikiz (12. NPAO, 1999ko urriaren 20koa), pertsona bakarreko hautagaitza izateak beharturiko egokitzapenekin.

Egokitzapen horiek direla eta, arau hauek aplikatuko dira, bereziki:

*a) Parlamentu-talde edo foru parlamentarien elkarte bakoitzak hautagai bakarra aurkezten ahalko du.*

*b) Osoko Bilkurak hautagaia izendatzeko botazioan, foru parlamentarietxartelean jasotzen ahalko dute Mahaiak aldarrikaturiko hautagaietako baten izena soilik.*

**3.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2015eko uztailaren 31n

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza



